

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### KANPEZUKO UDALA

#### **Jendaurrean jartzea trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaindu behar dutenen 2016ko errolda**

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2016ko errolda egin denez gero, jendaurrean jartzen da, hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Epe horretan, interesdunek egoki irizitako erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Agiriak interesdunen eskura daude udal idazkaritzan, jendearentzako ordutegian.

Halaber, jakinarazten da martxoaren 1etik apirilaren 30era arte (biak barne) prest egongo direla trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2016ko erroldaren ordainagiriak, borondatezko epean ordaintzeko.

Zergaren ordainketa helbideratuta daukatenei 2016ko martxoaren 7an kobratuko zaie.

Zerga hori ordaindu behar duten zergadunek ordainketa helbideratuta ez badute, Kanpezuko Udalak Santikurutze Kanpezuko banketxeetan dituen kontuetan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga-zorrak aipatutako epean. Ordaindu aurretik zergapekoek udal bulegoetan jaso beharko dituzte ordainagiriak, astelehenetik ostiralera, 09: 00etatik 14: 00etara.

Epe hori igarotakoan premiamenduko betearazte bideari ekingo zaio, indarrean dagoen Zergabilketarako Araudi Orokorren arabera, eta ordaindu ez diren kuotak ehuneko 20ko erre-karguarekin kobratuko dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Santikurutze Kanpezu, 2016ko urtarrilaren 25a

*Alkatea*

*IBERNALO BASTERRA TXASKO*